


Euskal AEko eraikuntzaren kostuak %0,4 igo ziren 2007ko maiatzean

Azken hamabi hilabeteetan (2007ko maiatza, 2006ko maiatzarekin alderatuta) eraikuntzaren kostuak % 5,8 gehitu ziren

2007ko maiatzean, Euskal AEko Eraikuntzaren Kostuen Indizea %0,4 igo zen, aurreko hilaren aldean, eta maiatzeko urte arteko tasa %5,8ra iritsi zen, EUSTATEN datuen arabera. Maiatzean Eraikuntzako azpisektorea %0,5 hazi zen eta Obra Zibilekoa %0,3; urte arteko tasak %6,0 eta %4,7 izan ziren, hurrenez hurren.

Urte arteko aldakuntza-tasak, 1997-2007



(*) Hazkundera maiatzako urte artekoa da

Iturria: EUSTAT

2007ko maiatzean, lan-eskuaren kostua ez da aldatu (%0,0); lehengaien kostuak, berriz, %0,6 igo dira.

Eraikuntza eta Obra Zibila azpisektoreek antzeko bilakaera izan zuten: aurreko hilaren aldean %0,7 igo zen Eraikuntzako lehengaien kostua eta %0,5 Obra Zibilekoa. Azpisektore bien urteko bilakaeran ikusten denez, biek antzeko joerak izan dituzte baina indar ezberdinez: eraikuntzako lehengaien kostuak %7,1, hazi dira, eta obra zibilekoak, %5,4.

Maiatzean prezio hazkunderik handienak kontsumitutako honako lehengaiak izan zituzten: beira (%4,0), burdin eta altzairua (%2,9) petroliotik eratorritakoak (%2,4), asfalto-produktuak (%2,0), leherkari eta gasak (%1,7), besteren artean. Aitzitik, hileko prezioetan murrizketak izan zituzten

energia elektrikoa (% -1,3), plastikozko hoditeria (%-0,3) egiturak eta galdaragintza (% -0,3), lur egosiak (% -0,2) eta lur landua (% -0,2) lehengaiak, besteren artean.

Sektorean kontsumitu diren lehengaien prezioari dagokionez, azken hamabi hilabeteetan inflazio-tasa handienak izan dituztenak ondokoak izan dira: burdina eta altzairua (%25,5), beira (%23,0), metalezko hoditeria (%16,4) eta energia elektrikoa (%9,1). Bestalde, urte batetik bestera (2006 maiatzetik 2007ko maiatzera) honako hauen lehengaien prezioak murriztu dira: asfaltozko produktuak (%-10,1), petrolioaren eratorriak (%-3,4), egiturak eta galdaragintza (-%1,2).

Eraikuntzaren kostuen indizea. Euskal AE / Datu aurrerapena. 2007ko maiatza.

GOIBURUAK	INDIZEA Oin., 2000= 100	GEHIKUNTZAREN %		
		Aurreko hilaren aldean	Aurreko urteko hil beraren aldean	Aurreko abenduaren aldean
KOSTUA GUZTIRA	131,5	0,4	5,8	3,8
ERAIKINAK	131,7	0,5	6,0	3,9
OBRA ZIBILA	130,6	0,3	4,7	3,5
LEHENGAIEN KOSTUA	128,9	0,6	6,8	3,9
ERAIKINAK	129,4	0,7	7,1	4,0
OBRA ZIBILA	126,9	0,5	5,4	3,5
LAN-ESKUAREN KOSTUA	137,4	0,0	3,5	3,5

Iturria: EUSTAT

Argibide gehiago nahi izanez gero:

Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel:+34-945-01 75 00 Faxe:+34-945-01 75 01 Posta elek.: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Gerardo Pérez Aja

Tel:+34-945-01 75 06 Faxe:+34-945-01 75 01

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es

Datu-bankua: www.eustat.es/bancopx/euskara/indice.asp